



TXOSTEN METEOROLOGIKOA –2018KO AZAROA

Azaroa beroa eta lehorra izan zen. Bigarren eta hirugarren koadranteke haize indartsuengatik eta itsaso zakarragatik igorri ziren abisu gehienak.

Prezipitazioa

Azaroa EAEn lehorra izan zen orokorrean, Bizkaiko barnealdean oso lehorra, ohikoa denaren erdia baino ez zen pilatu han, eta Arabako zenbait tokitan ohikoa, esate baterako Arabako Lautadaren ekialdean eta Arabako Errioxan. Estazio gutxitan pilatu ziren 100 mm baino gehiago, guztiak Gipuzkoako ipar-ekialdean daude (Eskas 158.4 mm, Ameraun 156.7 mm, Miramon 122.6 mm) eta Gipuzkoa eta Arabako isurialdeen arteko banalerroaren inguruan (Zegama 127.1 mm, Urkulu 118.7 mm, Ozaeta 107.1 mm, Ilardauia 103.6 mm). Euri gutxien lurraldearen mendebaldean pilatu zen (Trobiño 42.4 mm, Moreda 46 mm, Ordunte 49.8 mm, Saratxo 56.9 mm, Venta Alta 62.2 mm).

Azaroa lehorra izan arren, prezipitazio-egunen (≥ 1 mm) kopurua ohikoa izan zen, 12 ingurukoa, Arabako Errioxan izan ezik; han kopurua handiagoa izan zen (10, ohikoa 6.7 denean). Prezipitazioari loturiko egoera aipagarririk ez zen egon, beraz.

Behin baino ez zuen euria oso ugari egin. Hilaren 26an, goizaldetik eguerdira euria etengabe egin zuen eta Gipuzkoa ipar-ekialdeko zenbait lekutan 30 mm baino gehiago pilatu ziren (Ameraun 52.2 mm, Zarautz 46.7 mm, Berastegi 44 mm, Zizurkil 41.3 mm). Prezipitazioaren intentsitatea ertaina izan zen, zenbait kasutan handia (Zarautz 15 mm/h, Lasarte 10.4 mm/h, Ameraun 10 mm/h).

Hilaren 20an elurra egin zuen. Eguerditik aurrera fronte okluditu bat pasa zen EAetik eta zenbait lekutan eta ordu batzuetan elur-kota 700-800 metrora jaitسي zen, izan ere aire-masa hotz batek eragin handiagoa izan zuen zonalde konkretu horietan, esate baterako Urkiolan.

Taula 1: Azken urteetan azaroan pilatutako prezipitazioa, Euskal Autonomi Erkidegoko sare automatikoaren estazio adierazgarrietan.

	2018	2017	2016	2015	2014	2013	2012	2011	2010	2009
Deusto	63.6	185.2	179.9	139.7	138.5	274.2	93.5	211.9	254.6	184.1
Lasarte	118.7	261.2	285.8	163.5	191.7	376.2	228.9	258.5	285.1	250.8
Arrasate	84.6	170.0	192.7	188.1	165.8	450.8	167.9	209.8	217.4	255.7
Abetxuko	69.9	71.0	112.6	54.7	126.1	186.6	95.9	83.0	112.8	122.0
Páganos	67.1	26.8	70.2	48.6	112.4	104.9	98.3	81.0	45.9	103.8



Temperatura

Batez besteko temperaturen arabera, azaroa beroa izan zen. Kostaldean 13 °C ingurukoa izan zen batezbestekoa eta Arabako Lautadan 9 °C ingurukoa, 1981-2000 denboraldi normalaren batezbestekoa baino 1 °C altuagoa, alegia. Azken urteetako batez besteko temperaturekin alderatuz, erdian kokatzen da 2018ko azaroa, serieko balio altuenak 2006koak izan ziren.

Hilaren hasieran hotz egin zuen, baina hilaren 7tik aurrera egun beroak gailendu ziren. Azaroko erdiko egunetan irregulartasuna handiagoa izan zen, 14tik 17ra bitartean; orduan neurtu ziren temperatura maximo altuenak, kantauri isurialdeko hainbat lekutan 20 °C-tik gorakoak (Oleta 23.6 °C, Deusto 23.5 °C, Oiartzun 22.8 °C, Ibai Eder 22.8 °C el día 15).

Temperatura minimoei dagokienez, hilaren 4a izan zen egunik hotzena EAEn. Mediterraneo isurialdeko leku askotan inbertsio termikoa izan zen eta gaueko erradiazioaren ondorioz izotza egin zuen, Arabako Errioxan izan ezik (Espejo -2.7 °C, Ozaeta -2.5 °C, Navarrete -2.5 °C); kostaldeko temperatura minimoak 5 °C-tik beherakoak izan ziren. Egun hori izan zen Arabako hiriburuan izotza egin zuen egun bakarra, azaroan batez besteko klimatologikoa ia 5 egun diren arren. Gainerako egunetan izotz txikia baino ez zuen egin eta leku batzuetan bakarrik, batez ere Arabako mendialdean. Hilaren 20an ere hotz handia egin zuen, Gipuzkoan hilaren 4an baino handiagoa, Iberiar penintsularen iparraldean zegoen depresio hotz baten eraginez. Egun horretan temperatura maximoek ez zituzten 10 °C-ak gainditu.

Taula 2: Azaroan, azken urteetan, neurtutako batez besteko temperatura Euskal Autonomi Erkidegoko sare automatikoaren estazio adierazgarrietan.

	2018	2017	2016	2015	2014	2013	2012	2011	2010	2009
Deusto	13.1	11.5	12.5	15.1	15.2	12.2	13.7	15.6	12.0	14.9
Lasarte	12.3	10.4	10.6	13.5	14.1	10.3	12.0	14.7	10.6	13.7
Arrasate	10.4	8.3	8.9	11.4	11.7	8.4	9.6	12.1	8.1	12.0
Abetxuko	8.8	6.6	7.5	9.1	10.2	7.6	7.8	10.4	7.1	10.1
Páganos	8.4	8.1	8.3	9.7	9.9	8.0	8.2	10.4	7.7	9.7

Haizea

Azaroan bigarren eta hirugarren koadranteko fluxuak gailendu ziren.

Hainbat egunetan haize zakarra ibili zen gurean eta 10 egun ezberdinetan haize-boladek 100 km/h-ko abiadura gainditu zuten.

Hilaren 6tik 11ra egunero gainditu zuten haize-boladek 100 km/h-ko abiadura. Hileko denboraldirik haizetsuena izan zen hura, Britainiar uharteen mendebaldean egon zen depresio egonkor baten eraginez. Depresio hark hego-osagaiko haize-bolada oso gogorrak eragin zituen, batez ere Bizkaia eta



Araba mendebaldeko haizeguneetan. Lehenengo egunean neurtu ziren haize-bolada aipagarrienak; Bizkaiko kostaldeko zenbait tokitan 120 km/h-ko abiadura gainditu zuten (Punta Galea 125.3 km/h, Matxitxako 121 km/h), 100 km/h-ko abiadura haizeguneak diren beste toki batzuetan (Arboleda 115.6 km/h, Oiz 108 km/h, Untzueta 105.5 km/h, La Garbea 103 km/h, Tobillas 102.2 km/h) eta 80 km/h-ko abiadura haizeguneak ez diren toki batzuetan (Deusto 92.9 km/h, Iurreta 88.6 km/h).

Haize-boladek 100 km/h-ko abiadura gainditu zuten gainerako egunak hilaren 22tik aurrerakoak izan ziren, Atlantikoko depresio txiki batzuk, bata bestearen segidan, Penintsularen ipar-mendebaldetik igaro zirenean. Hilaren 29a izan zen egun horien artean aipagarriena eta Bizkaiko kostaldean haize-bolada gogorrenek 120 km/h-ko abiadura gainditu zuten (Matxitxako 120.2 km/h, Punta Galea 117 km/h, Orduña 114.5 km/h, Cerroja 104 km/h).

Analisia

Azaroaren 1etik 2ra

Azaroaren hasieran euria egin zuen, aurreko eguneko fronteak ekarrita (500 hPa-eko mailan ekialdera mugitzen ari zen aska baten isla). Eguna aurrera joan ahala eguraldiak hobera egin zuen nabarmen, arratsalde-gau partean berriro ere hodeiak ugaritu egin ziren arren. Hilaren 2an fronte batzuk Kantauri Itsasoa zeharkatu zuten, iparraldeko haizearen laguntzaz, eta goizean euria egin zuen. Fronteen ostean Azoretako antizikloia zabaldu zen gurean eta ziri itxura hartu zuen; beraz, arratsalde-gau partean hobera egin zuen.

Azaroaren 3tik 4ra

Azaroaren 3tik 4ra eguraldia egonkorra izan zen. Lehenengo egunean Atlantikoko presio altuak Europa erdialderaino zabaldu ziren, zubi antizikloniko bat sortuz. Hurrengo egunean zubi antizikloniko hori hautsi egin zen eta gune bat Danimarkan kokatu zen, beste txikiago bat Penintsulan. Zerua hodei gutxirekin egon zen; tenperatura minimoak baxuak izan ziren, ekialdeko haizea ibili baitzen eta eguratsaren maila baxuenetan aire hotza sartu zelako (850 hPa-eko mailan tenperatura 3 °C ingurukoa izan zen). Tenperatura maximoek, ordea, gora egin zuten, eguna aurrera joan ahala indartuz joan zen hego-haizeari esker.

Azaroaren 5etik 12ra

Aste hartan mendebal/hego-mendebaldeko eta ipar-mendebaldeko haizea izan ziren nagusi. Zirkulazio zonal indartsu bat ezarri zen eta 60 ° paralelotik igaro ziren depresio batzuei lotutako hainbat frontek eragin ziguten. Eguraldi ona eta txarra tartekatuz joan zen. Egun haietan haize-bolada oso gogorrak izan ziren.

Azaroaren 13tik 17ra

Hilaren 13tik aurrera egoera goitik behera aldatu zen. Zirkulazio zonala izatetik 500 hPa-eko mailan European omega itxurako blokeoa izatera pasa ginen. Horren isla lurrazalean Penintsulatik Errusiaraino hedatu zen presio altuen gune



handi bat izan zen. Egoerak horrela jarraitu zuen hilaren 18ra arte. 850 hPa-eko mailan temperatura 10-12 °C ingururaino igo zen eta hego-ekialdeko haizea ibili zen. Kantauri isurialdean eguraldia egonkorra eta oso atsegina izan zen; zeruan hodei gutxi eta 20 °C-tik gorako temperatura maximoak. Mediterraneo isurialdean, aldiz, behe-hodei ugari agertu zen eta giroa freskoagoa izan zen. Azpimarragarria da Levanten izan zuten egoera: Murtziatik Kataluniara dagoen kostaldean euria etengabe egin zuen eta uholde handiak izan ziren.

Azaroaren 18tik 24ra

Blokeoaren hego-ekialdetik jatorri kontinentaleko aire-masa oso hotz bat sartu zen (500 hPa-eko mailan -35 °C, 850 hPa-eko mailan -8 °C); mugimendu atzerakoia eginez Europa erdialdetik Frantziara mugitu zen eta gero latitudean gora joan, horregatik Kantauri ukitu besterik ez zuen egin. Gailurraren beste aldetik depresio bat sartu zen Iberiar penintsularen hego-mendebaldera. Hurrengo egunetan, oso ezberdinak ziren bi aire-masa horiek uztartu eta presio baxuko eremu handi bat sortu zen, fronte-sistema batzuekin. Fluxu nagusitik isolatuta geratu ziren fronte horiek, noraezeko mugimendua eduki zuten eta Penintsula osoan eragin, baina modu ezberdinean. Berrero ere Levanten eta Penintsularen hegoaldean izan zuten eragin handiena, eta hilaren 18an eta 19an uholde handiak gertatu ziren han. Gurean, ordea, eguraldia lasaia izan zen, fluxu kontinentala ibili zen hasieran, gero hego-haizea. Euri pixka bat egin zuen hilaren 18an, 20an, eta 21ean goizean goiz. Horien artean, hilaren 20a da aipagarriena, fronte txiki batek lurraldea zeharkatu baitzuen, bi aire-masa horien banaketaren ondorioz. Egurditik aurrera elur-kota 700-800 metrora jaitsi zen giroa hotzagoa eta euritsuagoa zen lekuetan, esate baterako Urkiolan.

Azaroaren 25etik 26ra

Zirkulazio zonal indartsuak depresio txiki bat bidali zuen Penintsulara; ipar-mendebaldetik Mediterraneora mugitu zen depresio hura. Depresioari loturiko fronteen eta itsasaldeko fluxuaren ondorioz, giro hotza eta euritsuak izan zen, baina elur-kota 1000 metrotik gora egon zen.

Azaroaren 27tik 30era

Itsasaldeko fluxuek euri apur bat ekarri zuten hilaren 27an, goizaldean, batez ere kantauri isurialdera. Hala eta guztiz ere, zurrumbilo polarraren ondulazioak Penintsula gailur antiziklonikoaren eraginpean utzi zuen. Beraz, eguraldiak hobera egin zuen; ateri egon zen eta tenperatura igo egin zen. On-aldiak ez zuen luze iraun, ordea. Ipar Atlantikoan depresio indartsu bat kokatu zen eta Britainiar uharteetara hurbildu zen. Depresioaren hegoaldean Diana izeneko depresioa ziklogenesi prozesuan murgilduta zegoen, gero eta indartsuagoa. Azore uharteetan iparraldetik Britainiar uharteetako bidea hartu zuen Diana depresioak. Lurraldean bere eragina txikia izan zen: haize-bolada indartsu batzuk eta itsaso zakarra. Hilaren 29tik aurrera aska bat gailurraren lekua hartuz joan zen. Lurrazalean, Diana depresioaren atzetik beste depresio txiki bat agertu zen eta depresio hari loturiko fronte hotzak Penintsula zeharkatu zuen, mendebaldetik ekialdera. Gauzak horrela, tenperaturaren beherakadarekin eta giro euritsuarekin eman genion amaiera azaroari.




Oinarrizko datu estatistikoak

Taula 3: 2018ko azaroko balio klimatikoak, Euskal Autonomi Erkidegoko sare automatikoaren estazio adierazgarrietan.

Estazioa	Batez besteko Temp. °C	Temp. max. °C	Temp. max.abs °C	Temp - min °C	Temp. min.abs °C	Izotz- eguna k	Pilatutak o euria l/m ²	Egun batean pilatutak o euri max l/m ²	Euri- egunak .
Deusto	13.1	16.8	23.5	9.7	4.9	0	63.6	20.5	12
Lasarte	12.3	16.4	22.0	8.3	4.0	0	118.7	39.4	14
Arrasate	10.4	14.8	20.8	6.5	0.2	0	84.6	22.1	11
Abetxuko	8.8	13.3	18.3	4.7	-1.7	0	69.9	12.0	13
Párganos	8.4	12.1	16.6	5.2	0.9	0	67.1	11.8	14




Eguneko temperatura eta prezipitazioaren grafikoak




Prezipitazioaren jokaera


Behatutako prezipitazioa
Precipitación observada




Prezipitazio normala
Precipitación normala



Prezipitazio normalarekiko desbideratzea
Desviación respecto a la precipitación normala



Prezipitazio normalarekiko portzentaia
Porcentaje respecto a la precipitación normala





Muturreko egoerak

Azaroan 20 abisu hori igorri ziren, 6 haizeagatik haizeguneetan, 4 haizeagatik haizeguneak ez diren tokietan, 3 olatuen altueragatik nabigaziorako eta 7 itsasaldeko arriskuagatik.

- Hilaren 4an olatuen altuera adierazgarria 3-3.5 m ingurukoa izan zen, olatuen arteko periodoa 18 s-koa. Itsasgora 14:11an (ordu lokala) 4.32 m-ko estimatutako marearen altuerarekin (astronomikoa + meteorologikoa). Gainezka egiteko indizeak: $I=6.3$ m eta $I_{max}=6.9$ m.

Igandea, hilak 4: Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Kostaldeko kalteak 13etatik 15etara ordu lokala.

- Hilaren 5ean goizaldean, olatuen altuera adierazgarria 3 m ingurukoa izan zen, olatuen arteko 16 s-koa. Itsasgora 02:39an (ordu lokala) 4.33 m-ko estimatutako marearen altuerarekin (astronomikoa + meteorologikoa). Gainezka egiteko indizeak: $I=6$ m eta $I_{max}=6.5$ m. Arratsaldean olatuen altuera adierazgarria 2.5 m ingurukoa izan zen, olatuen arteko periodoa 14 s-koa. Itsasgora 14:57an (ordu lokala) 4.56 m-ko estimatutako marearen altuerarekin (astronomikoa + meteorologikoa). Gainezka egiteko indizeak: $I=5.9$ m eta $I_{max}=6.3$ m.

Astelehena, hilak 5: Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Kostaldeko kalteak 01etatik 04etara ordu lokala

Astelehena, hilak 5: Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Kostaldeko kalteak 14etatik 16etara ordu lokala.

- Hilaren 6an mendebal-osagaiko haizeak, 6ko indarrarekin, itsaso zakarra eragin zuen. Ipar-mendebaldeko hondoko itsasoak 2 m-ko olatuak altxatu zituen. Olatuen altuera adierazgarria 3-3.5 m ingurukoa izan zen, olatuen arteko periodoa 13 s-koa. Itsasgora 03:20an (ordu lokala) 4.53 m-ko estimatutako marearen altuerarekin (astronomikoa + meteorologikoa). Gainezka egiteko indizeak: $I=5.8$ m eta $I_{max}=6.2$ m.

Asteartea, hilak 6: Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Nabigazioa lehenengo bi milietan 00etatik 12etara ordu lokala. Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Kostaldeko kalteak 03etatik 04etara ordu lokala.

- Hilaren 6tik 11ra Britainiar uharteren mendebaldean zegoen depresio egonkor batek hego-osagaiko haizea eragin zuen gurean. Bolada oso gogorrak izan ziren, batez ere Bizkaiko eta Arabako mendialdeko haizeguneetan. Lehenengo egunean neurtu ziren haize-bolada aipagarrienak; Bizkaiko kostaldeko zenbait tokitan 120 km/h-ko abiadura gainditu zuten eta haizeguneak ez diren toki batzuetan 80 km/h-ko abiadura.



Haizegunea	hilak 6 km/h	Hilak 7 km/h	hilak 8 km/h	hilak 9 km/h	hilak 10 km/h	hilak 11 km/h
Herrera	81.7	68.8	65.5	88.9	79.2	72.0
Kapildui	85.3	57.6	67.7	83.2	78.8	64.8
Jaizkibel	87.5	91.4	84.2	65.2	76.3	75.2
Zarautz	88.2	68.8	52.6	68.8	79.9	88.9
Venta Alta	90.7	83.9	56.9	77.4	73.1	67.0
Cerroja	95.0	113.0	62.6	104.0	99.7	95.0
Orduña	96.5	98.3	79.2	89.3	3.6	2.9
Tobillas	102.2	103.3	55.8	79.6	85.0	76.7
La Garbea	103.0	106.9	72.4	96.5	110.2	96.5
Untzuet	105.5	106.6	62.6	87.8	91.1	98.3
Oiz	108.0	110.2	83.5	80.3	81.0	95.4
Arboleda	115.6	92.5	65.2	115.6	114.5	90.0
Matxitxako	121.0	110.9	82.4	110.2	113.0	101.9
Puntal Galea	125.3	86.4	60.8	110.9	116.3	112.7
Haizegunea ez den tokia						
Iurreta	88.6	83.5	45.0	41.8	72.0	67.0
Deusto	92.9	80.3	53.3	82.1	78.8	63.7

Asteartea, hilak 6: Abisu Horia haizeagatik mendi inguruetako haizeguneetan 21etatik 24etara ordu lokala. Abisu Horia haizeagatik haizeguneak ez diren tokietan Bizkaian 21etatik 24etara ordu lokala.

Asteazkena, hilak 7: Abisu Horia haizeagatik mendi inguruetako haizeguneetan 00etatik 06etara ordu lokala. Abisu Horia haizeagatik haizeguneak ez diren tokietan Bizkaian 00etatik 06etara ordu lokala.

Ostirala, hilak 9: Abisu Horia haizeagatik haizeguneetan 18etatik 24etara ordu lokala. Abisu Horia haizeagatik haizeguneak ez diren tokietan Bizkaian 21etatik 24etara ordu lokala.

- Hilaren 8an, goizaldean, olatuen altuera adierazgarria 3 m ingurukoa izan zen, olatuen arteko periodoa 15 s-koa. Itsasgora 04:34an (ordu lokala) 4.53 m-ko estimatutako marearen altuerarekin (astronomikoa + meteorologikoa). Gainezka egiteko indizeak: $I=6.1$ m eta $I_{max}=6.5$ m. Arratsaldean olatuen altuera adierazgarria 2.5-3 m ingurukoa izan zen, olatuen arteko periodoa 14 s-koa. Itsasgora 16:54an (ordu lokala) 4.52 m-ko estimatutako marearen altuerarekin (astronomikoa + meteorologikoa). Gainezka egiteko indizeak: $I=5.8$ m eta $I_{max}=6.2$ m.

Osteguna, hilak 8: Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Kostaldeko kalteak 03:30etatik 05:30etara ordu lokala. Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Kostaldeko kalteak 16etatik 18etara ordu lokala.

- Hilaren 9an, eguerdira arte, ipar-mendebaldeko hondoko itsasoak 3-3.5 m-ko olatuak altxatu zituen eta olatuen arteko periodoa 18-16 s-koa izan zen. Mendebal-osagaiko haizeak, 5eko indarrarekin, itsaski handia eragin zuen. Goizean haizeak indarra galdu zuen eta hego-mendebaldetik finkatu zen, 3ko indarrarekin; itsaso zakarra eragin zuen orduan haizeak. Olatuen altuera adierazgarria 3.5-4 m ingurukoa izan zen, olatuen arteko periodoa



17 s-koa. Itsasgora 05:09an (ordu lokala) 4.52 m-ko estimatutako marearen altuerarekin (astronomikoa + meteorologikoa). Gainezka egiteko indizeak: $I=6.5$ m eta $I_{max}=7$ m. Arratsaldean olatuen altuera adierazgarria 3-3.5 m ingurukoa izan zen, olatuen arteko periodoa 16 s-koa. Itsasgora 17:29an (ordu lokala) 4.38 m-ko estimatutako marearen altuerarekin (astronomikoa + meteorologikoa). Gainezka egiteko indizeak: $I=6.1$ m eta $I_{max}=6.6$ m.

Ostirala, hilak 9: Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Nabigazioa lehenengo bi milietan 03etatik 15etara ordu lokala. Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Kostaldeko kalteak 04etatik 06etara ordu lokala. Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Kostaldeko kalteak 16:30etatik 18:30etara ordu lokala.

- Hilaren 24an eta 25ean Bizkaiko eta Arabako mendebaldeko mendi inguruetan hego/hego-mendebaldeko haize-boladek 100 km/h-ko abiadura gaintu zuten, Portugal iparraldeko kostaldetik etorritako depresio txiki batek Kantauri Itsasoa zeharkatu zuenean.

Haizegunea	Hilak 24	Hilak 25
	km/h	km/h
La Garbea	94.3	79.6
Oiz	110.5	82.4
Orduña	113.4	104.0
Cerroja	116.3	76.0

Larunbata, hilak 24: Abisu Horia haizeagatik haizeguneetan 21etatik 24etara ordu lokala. Igandea, hilak 25: Abisu Horia haizeagatik haizeguneetan 00etatik 03etara ordu lokala.

- Hilaren 26an mendebal/ipar-mendebaldeko haizeak, 6ko indarrarekin, itsaso zakarra eragin zuen. Goizaldean olatuen altuera adierazgarria 1.5 metro ingurukoa izan zen, egunaren erdiko orduetan 2.5-3 metrokoa eta arratsaldean 2.5 metrokoa.

Astelehena, hilak 26: Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Nabigazioa lehenengo bi milietan 06etatik 18etara ordu lokala.

- Hilaren 28an eta 29an Bizkaiko eta Arabako mendebaldeko haizeguneetan hego/hego-mendebaldeko haize-boladek 100 km/h-ko abiadura gaintu zuten, haizeguneak ez diren tokietan 80 km/h-ko abiadura, "Diana" depresioa eta gero depresio txiki bat Penintsularen ipar-mendebaldetik igaro zirenean.

Haizeguneak	Hilak 28	Hilak 29
	km/h	km/h
Arboleda	105.1	98.6
Cerroja	72.7	104.0
Orduña	88.6	114.5
Punta Galea	87.1	117.0



Matxitxako	109.1	120.2
------------	-------	-------

Haizeguneak ez diren tokiak

Galindo	44.6	85.7
Deusto	70.9	89.6

Osteguna, hilak 29: Abisu Horia haizeagatik haizeguneetan 00etatik 13etara ordu lokala.



Terminologia

Batez besteko tenperatura: hileko batez besteko tenperatura.

- *Tenperatura maximoa:* eguneko tenperatura maximoen hileko batez bestekoa.
- *Tenperatura maximo absolutua:* hileko tenperaturarik altuena.
- *Tenperatura minimoa:* eguneko tenperatura minimoen hileko batez bestekoa.
- *Tenperatura minimo absolutua:* hileko tenperaturarik baxuena.
- *Izotz-egunak:* hilean, tenperatura 0 °C-tik behera egon deneko egun kopurua.
- *Pilatutako prezipitazioa:* hilean pilatutako prezipitazio totala.
- *Eguneko prezipitazio maximoa:* hilean, eguneko prezipitazio total altuena.
- *Prezipitazio-egunak:* hilean, estazioak ≥ 1 mm-ko prezipitazioa neurtzen dueneko egun kopurua.

Temperaturaren maiztasun-indizea (f) . Irizpidea:

- *Erabat beroa:* tenperaturak, 1971-2000ko denboraldiko balio maximoa, gainditzen duenean.
- *Oso beroa:* $f < \%20$. tenperatura, urterik beroenen $\%20$ ari dagokion tartean dagoenean.
- *Beroa:* $\%20 \leq f < \%40$.
- *Ohikoa:* $\%40 \leq f < \%60$. tenperatura erdiko balioaren inguruan aurkitzen denean.
- *Hotza:* $\%60 \leq f < \%80$.
- *Oso hotza:* $f \geq \%80$. tenperatura, urterik hotzenen $\%20$ ari dagokion tartean dagoenean.
- *Erabat hotza:* tenperatura, 1971-2000ko denboraldiko balio minimora irizten ez denean.

Prezipitazioaren maiztasun-indizea (f) . Irizpidea:

- *Erabat hezea:* prezipitazio-kopurua, 1971-2000ko denboraldiko balio maximoa, gainditzen duenean.
- *Oso hezea* $f < \%20$. prezipitazio-kopurua, urterik hezeenen $\%20$ ari dagokion tartean dagoenean.
- *Hezea:* $\%20 \leq f < \%40$.
- *Ohikoa:* $\%40 \leq f < \%60$. prezipitazio-kopurua erdiko balioaren inguruan aurkitzen denean.
- *Lehorra:* $\%60 \leq f < \%80$.
- *Oso lehorra:* $f \geq \%80$. prezipitazio-kopurua, urterik lehorrenen $\%20$ ari dagokion tartean dagoenean.
- *Erabat lehorra:* prezipitazio-kopurua, 1971-2000ko denboraldiko balio minimora irizten ez denean.

Testuan erabilitako beste termino meteorologikoen azalpena hurrengo terminologi gidan aurki daiteke:

http://www.euskalmet.euskadi.net/s07-5893/eu/contenidos/informacion/manual_estilo/eu_9900/eu_manual.html.

OHARRA: txosten honetan erabilitako datuak behin-behinekoak dira eta erabat balioztatzeke daude.